

tatzen zuan Eibar'ko txokotik urruti, an bere bizia bukatu arte. Bere oroitza emen zuanez, ilburukoan, *Ibiltarixanak* liburuaren irabaziak Eibar'ko hospitalerako utzi ditu. Azken borondatea ere olakoa izan du gizonak.

Bere bizitzaren berri zeatzagoak eta ugariagoak eman nituan EUSKERA, VIII-IX, 53/57 or., *Flexiones verbales de Eibar* en presentazioan eta *Ibiltarixanak* liburuaren («El Diario Vasco», 23 de abril, San Sebastián, 1968), eta neronek *Toribio Etxe-*

Eriotza ondorengoak ikusi Carlos Santamaria'ren *Aspectos - Un viejo luchador* («El Diario Vasco», 28 de abril, San Sebastián, 1968), eta neronek *Toribio Etxe-barria'ren berri beltza Caracas'tik* («Zeruko Argia» 270 zenbakia, loraillaren 5-ekoa, 1968).

Munduak ain urri ematen dituan gizonetariko onek damutu bearrezko gauza gu-txi izango zuan bere barnean. ta bai kontzientzia nunnai zabal eta lasai agertzekoa.

Erljio problemak bizi guztian kezkatu zuan gizon onek ez dakigu azken itzik jaso al izan duan, baiña zerurik bada an izango da inor izatekoan.

J. San Martín.

RAMON MENENDEZ PIDAL (1869-1968)

1968-ko azaroaren 14-an hil zan Madrilen Ramón Menéndez Pidal jauna. Euskaltzain laguntzailea zen 1919-tik eta aurtengo otsaileko biltzarrean euskaltzain ohorezko izendatua.

Coruñan jaioa zen, 1869-ko epailaren 13-an. Filosofia eta Letrak estudiatu zituan Madrilen eta 1893 hartu zuen dotoradutza. 1899-tik katetratiku Madrilgo Unibersidadean. 1901-ean hartu zuen lankide Real Academia Espainolak. Akademia honen zuzendari izendatu zen 1925-ean, eta hera hautatzen iraua zuen 1936-ra arte. 1947-an berriz izendatu zen Akademia honen buru eta heriotzara arte iraua du zuzendaritzan. 1916-an Academia de la Historiak bere elkargoan hartu zuen.

Jaso dituen saririk aipagarrienak ditugu: «Feltrinelli» 1952-an, «Juan March» literaturakoa 1956-an, «Balzan» 1964-an eta Lanaren urrezko medaila 1965-ean.

Bere idazlanak ugariak dira, liburutan baditu ehundik gora idatziak. Bere liburutegia milak liburuekin aberastu zuen. 1914-an *Revista de Filología Española* sortu zuen eta bere inguruan bildu zituen garaiko hizkuntzalaririk entzutetsuenak, batez ere erromanistak.

Lanik aipagarrienen artekoak ditugu: *La leyenda de los infantes de Lara* (1896), *Crónicas generales de España* (1898), *Poema del Cid* (1908-1911), *Orígenes del español* (1926), *La España del Cid* (1929), *Los españoles en la Historia* (1947), *Los españoles en la Literatura* (1949), *Romancero hispánico* (1953), eta abar.

Beti izan zuen gure hizkuntzarentzat begirapen ona eta zenbait estudio ere eginak ditu han-hemen argitaratuak, beretarik hobereenkin bilduma bat osatu zuen *En torno a la lengua vasca* (1962) izenez. Baina liburu honez gainera batitu beste lan batzuek ere euskal kulturarentzat interesgarriak: *Roncesvalles, Vitoria y Las Casas*, *El idioma español en sus primeros tiempos*, *Toponimia prerrománica hispana*, eta abar. Beregaitik gure eskerrik hobereenak zor dizkiogu. G. B.

J. San Martín.